

Gipuzkoako Foru Aldundiak A-636 Beasain-Bergara errepideko bidesariari buruzko informazio kanpaina hasi du



Kanpainaren helburua erabiltzaileek Abiatu gailua aurrez aurre eskatu ahal izatea da, autobia erabiltzeagatik kanona indarrean sartu aurretik.

2022ko urtarrilean, Beasain eta Bergara artean A-636 autobia erabiltzeagatik kanon bat kobratzea indarrean sartuko da, eta, data hurbil dagoenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak informazio-kanpaina bat abiaraziko du gipuzkoar guztientzat eta, bereziki, Beasain-Bergara autobidetik gertu dauden eta teleordainketako gailurik ez duten biztanleentzat.

Goierri, Urola Garaia eta Debagoienako udalerrri gehienetan triptiko bat postontzietan banatuz hasiko den kanpaina honen helburu nagusia da autobia erabiltzaileei jakinaraztea erabileraren araberako ordainketa ezarri dela eta derrigorrezkoa dela. Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuak aurreratu duenez, urriaren 25etik aurrera eta abenduaren 15era bitartean, Bidegiko bezeroen arretarako zerbitzuko langileak Beasain, Ormaiztegi, Zumarraga-Urretxu, Legazpi, Antzuola eta Bergarara joango dira eta aurrez aurreko arreta eskainiko dute. "Informazioa zuzenean eman nahi dugu eta erabiltzaileek izan dezaketen edozein zalantza edo kezka argitu", esan du Foru Aldundiko arduradunak. Hala, proiektuaren inguruko ezjakintasunak zalantzak sor ditzakeela azaldu du, eta, beraz, praktikoena informazio puntu horietara jotzea eta zalantzetatik irtetea da".

Udalerrietan aurrez aurreko arreta txandaka emango da hurrengo bi hilabeteetan, eta Urola Garaiko egutegia hau izango da:

Zumarraga: azaroak 16 eta 17 eta abenduak 2 eta 3, Zelai Aristi kultur etxean.

Urretxun: urriaren 29an eta azaroaren 2an, azaroaren 18an eta abenduaren 9an, udaletxean.



Legazpi: azaroaren 3an eta 19an eta abenduaren 10ean, udaletxean.

Jendaurreko ordutegia 9:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara izango da, lan-arrazoiengatik goizez joan ezin dutenei kudeaketa errazteko. Arreta-gune guztietan tarifei, deskontuei eta eskaera-inprimakiei buruzko informazioa egongo da.

Plangintza horren helburua da erabiltzaileek Abiatu gailua aurrez aurre eskatu ahal izatea edo beren ibilgailuaren matrikula banku-txartel batekin lotzea, autobia erabiltzeagatik kanona indarrean sartu aurretik. Foru-arduradunak, halaber, Abiatu gailua eskatzeko deia egin die erabiltzaileei, deskontu nabarmenak lortzeko eskubidea ematen duen bakarra delako. "Abiatu gailuari esker, beharpen progresiboak egin daitezke: % 25etik % 75era, hilean egiten den ibilbide-kopuruaren arabera. Gainera, hilean 33,37 euroko gastu topea izango du Gipuzkoako autobideetan, 49,30 eurokoa Bizkaiko AP-8an eta Arabako AP-1ean", azaldu du Oiarbidek, eta Estatuko, Portugalgo eta Frantziako autobide guztietan eta baimendutako aparkalekuetan ere erabil daitekeela gogorarazi du.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako azaroaren 6ko 4/2020 Foru Arauaren arabera, ibilgailu motordun guztiei eragingo die kanonak, motozikletei izan ezik. Kanonaren helburua da azpiegitura erabiltzen duenari helaraztea gure ahalmen handiko errepideek behar dituzten eraikuntza-, kontserbazio- eta kudeaketa-kostu handiak berreskuratzeko lana.

A-636 Tarifak

IBILBIDEA	ABIATURIK GABE	ABIATUREKIN (Deskontu progresiboak, gutxienez 6 joan-etorri hilean)		
		1-8 TRANSITO 25%	9-20 TRANSITO 55%	21 TRANSITOTIK AURRERA 75%
Beasain-Ormaiztegi	0,38€	0,28€	0,17€	0,09€
Ormaiztegi-Zumarraga	0,74€	0,55€	0,33€	0,18€
Legazpi/Urretxu-Bergara	1,41€	1,06€	0,63€	0,35
Legazpi/Urretxu-Antzuola	0,48€	0,36€	0,22€	0,12€

Autobiaren erabilera kobratzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak free-flow izeneko sistema adimendun baten aldeko apustua egin du, Norvegiako, Suediako, Portugalgo edo Kanadako errepideetan erabat operatibo dagoena eta A-15 eta N-I errepideetako arkupeetan ere erabiltzen dena. Ibilgailuaren matrikula banku-txartel bati lotzea erabakitzen dutenek puntu hauetan egin ahal izango dute. Autu horrek ez du aukerarik ematen Abiatuaren deskontuak eskuratzeko.



A-636 errepidearen kasuan, sentso-re eta gailu desberdinen bidez, Beasainen, Ezkion, deskargan eta Antzuolako bi arkupe txikitan edo banderatxoetan dauden 3 arkupeek kanona detektatu, sailkatu eta kobratuko diete ibilgailuak gelditu edo abiadura murriztu beharrik gabe arkupeak gurutzatzen dituzten ibilgailuei.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren aginduz, Bidegi foru-agentziak kudeatuko du A-636 errepidea erabiltzeagatik kobrantza. Horretarako, autobia erabiltzea erabakitzen duten erabiltzaile guztiek Tag gailu bat izan beharko dute, Abiatu gailua, bankuko Via-T bat edo ibilgailuaren matrikula banku-txartel batekin lotu beharko dute.

Tag Abiaturen eskaera edo matrikula banku-txartel bati lotzea bide telematikoz egin daiteke Bidegiren webgunean (www.bidegi.eus) edo aurrez aurre Aritzetako Bezeroaren Arreta Zerbitzuan (izen bereko zerbitzugunean, GI-20 errepidean, 14,800 KP).

Zarautz, 2021/10/13

La Diputación Foral de Gipuzkoa comienza una campaña informativa sobre el peaje de la A-636 Beasain-Bergara



El objetivo de la campaña es que los usuarios puedan solicitar de forma presencial el dispositivo Abiatu antes de que entre el vigor el cobro del canon por el uso de la autovía.

En enero de 2022 entrará en vigor el cobro de un canon por la utilización de la autovía A-636 entre Beasain y Bergara, y ante la cercanía de la fecha, la Diputación Foral de Gipuzkoa pondrá en marcha una campaña informativa dirigida a todos los guipuzcoanos y guipuzcoanas y, en especial, a los vecinos y vecinas de las poblaciones cercanas a la autovía Beasain-Bergara y que no posean ningún dispositivo de telepeaje.

El principal objetivo de esta campaña, que comenzará con el buzoneo de un tríptico en la mayoría de municipios de Goierri, Urola Garaia y Debagoiena, es informar a los usuarios y usuarias de la autovía de la implantación del pago por uso y la obligatoriedad de la misma. La diputada de Infraestructuras Viarias, Aintzane Oiarbide, ha adelantado que a partir del 25 de octubre y hasta el 15 de diciembre, personal del servicio de atención al cliente de Bidegi se desplazará a Beasain, Ormaiztegi, Zumarraga-Urretxu, Legazpi, Antzuola y Bergara y ofrecerá atención presencial. “Queremos ofrecer información de forma directa y aclarar cualquier tipo de duda o preocupación que puedan tener los usuarios de esta vía”, ha dicho la responsable foral. Así, ha explicado que el desconocimiento en torno al proyecto puede generar incertidumbres, por lo que lo más práctico es acudir a estos puntos de información y salir de dudas”.

La atención presencial en los diferentes municipios se rotará a lo largo de los dos meses siguientes siendo el calendario del Alto Urola el siguiente:



Zumarraga: 16 y 17 de noviembre y 2 y 3 de diciembre, en la casa de cultura Zelai Aristi.

Urretxu: 29 de octubre y 2 de noviembre y 18 de noviembre y 9 de diciembre. en el ayuntamiento.

Legazpi: 3 y 19 de noviembre y 10 de diciembre, en el ayuntamiento

El horario de atención al público será de 9:30 a 13:30 y de 16:00 a 20:00 para facilitar la gestión a los que por motivos laborales no tengan posibilidad de acudir durante la mañana. En todos los puntos de atención se dispondrá de información de las tarifas, descuentos, e impresos de solicitud.

El objetivo de esta planificación es que los usuarios puedan solicitar de forma presencial el dispositivo Abiatu o gestionar la vinculación de la matrícula de su vehículo a una tarjeta bancaria, antes de que entre el vigor el cobro del canon por el uso de la autovía. La responsable foral también ha animado a los y las usuarias a solicitar el dispositivo Abiatu que da derecho a obtener descuentos sustanciales. “El dispositivo Abiatu permite acceder a una serie de descuentos progresivos que van desde el 25% hasta el 75% en función del número de trayectos que se realicen al mes. Además, cuenta con un límite de gasto mensual de 33,37€ en las autopistas de Gipuzkoa y de 49,30€ en la AP-8 de Bizkaia y la AP-1 de Araba”, ha explicado Oiarbide y ha recordado que también se puede utilizar en todas las autopistas del Estado, Portugal y Francia, además de aparcamientos autorizados.

El canon afectará a todos los vehículos a motor excepto motocicletas, conforme a la Norma Foral 4/2020 de 6 de noviembre aprobada por las Juntas Generales de Gipuzkoa, y tiene como objetivo trasladar a quien utilice la infraestructura la recuperación de los importantes costes de construcción, conservación y gestión que requieren nuestras carreteras de gran capacidad.

Tarifas A-636

RECORRIDO	SIN ABIATU	CON ABIATU (Descuentos progresivos con un mínimo de 6 tránsitos/mes)		
		1-8 TRÁNSITOS 25%	9-20 TRÁNSITOS 55%	DESDE EL TRÁNSITO 21 75%
Beasain-Ormaiztegi	0,38€	0,28€	0,17€	0,09€
Ormaiztegi-Zumarraga	0,74€	0,55€	0,33€	0,18€
Legazpi/Urretxu-Bergara	1,41€	1,06€	0,63€	0,35
Legazpi/Urretxu-Antzuola	0,48€	0,36€	0,22€	0,12€



Para hacer efectivo el cobro por el uso de la autovía, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha apostado por un sistema inteligente denominado free-flow que está plenamente operativo en las carreteras de Noruega, Suecia, Portugal o Canadá y que también es la utilizada en los pódicos de la A-15 y N-I. Los que opten por vincular la matrícula de su vehículo a una tarjeta bancaria lo podrán hacer en estos puntos. Esta opción no permite acceder a los descuentos de Abiatu.

En el caso de la A-636, y mediante diferentes sensores y dispositivos, los 3 pódicos ubicados en Beasain, Ezkio, Deskarga y los dos mini-pódicos o banderolas de Antzuola detectarán, clasificarán y procederán al cobro del canon a los vehículos que crucen los pódicos sin necesidad de que el vehículo pare o reduzca la velocidad.

Por encomienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la agencia foral Bidegi será la encargada de gestionar el cobro por el uso de la A-636. Para ello, todas las personas usuarias que opten por utilizar la autovía para sus traslados deberán disponer de un dispositivo TAG, bien sea el dispositivo Abiatu, un VIA-T bancario o asociar la matrícula del vehículo a una tarjeta bancaria.

La solicitud del TAG Abiatu o la asociación de la matrícula a una tarjeta bancaria se puede hacer vía telemática en la web de Bidegi www.bidegi.eus o de modo presencial en el Servicio de Atención al Cliente de Aritzeta situado en el área de servicio del mismo nombre en la carretera GI-20 pk 14,800 de Usurbil.

Zarautz, 2021/10/13